

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak eta Nafarroako Komunitate Islamikoek lanean jarraitzen dute kulturen arteko harremana eta bizikidetzaren hobetzeko

Lantalde iraunkorraren bileran, hezkuntza-, kultura-, partaidetza-, bitartekaritza- eta osasun-gaiak jorratu dira

Osteguna, 2018.eko otsailak 22

Nafarroako Gobernuko zenbait departamentuk eta Nafarroako Komunitate Islamikoen ordezkariak 2016ko azaroan eratutako lantalde iraunkorraren beste bilera bat egin dute. Lantalde hori komunikazio- eta elkarrizketabide bat da Nafarroan bizi diren komunitate islamikoei bereziki eragiten dieten kulturen arteko harremanari eta bizikidetzari buruzko zenbait alderdi joratzeko.



Bileraren une bat, Ollo kontseilaria eta Álvaro Baraibar zuzendari nagusia buru zirela.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilari Ana Ollo izan da bileraren buru, eta bertan izan dira Espainiako Komunitate Islamikoen Batasunaren Nafarroako ordezkari Mohamed Amnay, Islamofobiaren aurkako Herri Plataformako kide Maryam Martínez Méndez, Chaoui Mohamed, Abdelkarim Messaoui, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako, Osasuneko, Kulturako, Eskubide Sozialetako eta Justiziako departamentuen ordezkariak, bai eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren ordezkariak ere.

Bileran, Gobernuko departamentuek 2017an egin dituzten ekimenak erreparatu dira, hezkuntzaren, bitartekaritza eta bizikidetzaren, islamofobiaren eta erradikalizatzearen aurkako borrokaren ingurukoak, besteak beste; eta 2018an landu beharreko gaiak jorratu dira.

Halaber, azaldu da zer ekimen ari den garatzen Gobernuak gaur egun, eta ekimen horietako zeinetan egin daitekeen lan modu bateratuan; horietako batzuk dira Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa, Osasungintza Publikoa Gizatiartzeko Plana eta kultur ekintza.

Komunitate Islamikoek esker ona adierazi dute Nafarroako Gobernuarekin zuzeneko komunikazioa dutelako, eta pozik agertu dira kulturen eta komunitateen arteko bizikidetzaren hobetzeko lanean egiten ari diren urratsekin. Hala ere, adierazi dute lanean jarraitu behar dela sentsibilizazio- eta komunikazio-gaietan, aniztasuna errespetatu dadin, eta islamofobia, arrazakeria eta erradikalizatzea prebenitzen lagundu dadin.